

poetas vascos

Arrastoa utziz zoaz beti iheska
bezala
Baina ez zoaz ihesi bakarrik beti
Batzutan
utzi ere zerbait uzten diguzu
gure baitan finko oraindik
tinko dirauena zintzilik
gure gogoan
zera uzten didazu beti
niregan:
zure oraingo esperantza
(nola gaztetxo batek izan dezakeen
etorkizun hurrean)
errotuta (esklabuaren katea hormari
bezala)
nire betiko dudatan
(nola zalantza lezakeen jainko erori
batek beste bustinezko idolo aurrean).

AZKENEKO URTE HAUEK

Azken urte hauek ez dira izan
Hain triste eta nekosoak,
Etzazula pentsa,
Memoria ere ilundu egin ohi da
Batzuetan
Ahantzi egiten da
Eta ahitu
Zenbait minutuz
Ilunabarrean beti
Egun lanbrotsuetan
Bizitzatik pittin bat apartatuz...
Eta orduan bihotzeko
Txinaurriaren zama astuna
Pausatzen duzu
Nonnahi
Lipartxo batez
Arinki
Soseguz,
Ahantzi ezinean

Joxemari Iturralde